

ERMUKO UDALEKO ALKATE JAUNARI

EH Bildu Udal Taldeak honako proposamena aurkeztu du, Udalbatzarrak onesteko:

Arrazoibidea

Energia-komunitateek jarduera energetikoak antolatzeko modu berri bat eskaintzen dute.

Energia-komunitateek, praktikan, jarduera energetikoak antolatzeko modu berriak sartzen ari dira (sorkuntza, biltegiatzea, erabilera desberdinetarako kontsumoa...), zero emisio garbi dituen ekonomiarako trantsizio energetikoarekin lerrokatuta eta energia-sistema tradizionalak energia-sistema berri bihurtzearekin bat eginez, energia-sistema berriok honako ezaugarri hauek dituztela: energia berriztagarriak gero eta gehiago sartzea, energia-baliabideak eta energia-merkatuak pixkanaka deszentralizatzea eta energia-kontsumitzaileak protagonista aktibo izatea, besteak beste.

Energia-komunitate kontzeptuan lau zutabe nagusi bereizi behar dira:

- 1) Energia-komunitateek erakunde juridikoen itxura hartzen dutela;
- 2) herritarren partaidetza ireki eta borondatezko bultzatzen dituela;
- 3) horien kontrola bazkide edo kideek egiten dutela eta
- 4) etekin ekonomikoko helburuen aurretik, ingurumen-helburuak, helburu sozialak eta energia-horniduraren kostuak murriztekoak lehenesten dituztela.

Energia-komunitateen bitartez, herritarrek protagonismoa hartzen dute energia-sisteman.

Energia-komunitateek Europar Batasunaren aintzinako helburuan, alegia, pertsonak (herritar guztiak) protagonista diren eta “erdian” dituen energia-sistema integratu bat eraikitzea ahalbidetzen dute.

«Energia erresilientearen Batasunaren helburua, asmo handiko politika klimatikoa ardatz duena, EBko kontsumitzaileei —etxe eta enpresetan— energia segurua, iraunkorra, lehiakorra eta eskuragarria eskaintzea da. Helburu hori eskuratzeak Europako energia-sistema sakon sakonetik eraldatzea eskatzen du (...)».

Energiaren Batasuna lortu nahi dugu, ekonomia jasangarria, hipokarbonikoa eta klima errespetatzen duena delako, irauteko diseinatua (...) Eta are garrantzitsuagoa dena, herritarrengan zentratutako Energiaren Batasuna lortu nahi dugu, non herritarrek trantsizio energetikoa beren gain hartuko duten, teknologia berriak beraien fakturak murrizteko erabiliz, merkatuan aktiboki parte hartuz, eta kontsumitzaile ahulak babestuz. (Europako Batzordea, 2015).

Bestalde, energia-komunitateek garrantzi handiagoa hartuko dute datozen urteetan energia-sistema eraldatzeko prozesuan, trantsizio energetikoari bultzada erabakigarria

emanez. Horien ekarpen nagusia honakoa izango da: energia-sistema gero eta deszentralizatuagoa (banatutako energia-baliabide gero eta gehiago sartzeagatik eta sare adimendunak garatzeagatik, adibidez) eta prozesu horretan herritarren parte-hartzea lotzeko kate-maila moduan jardutea.

Energia-komunitateen hurbiltasun-ikuspegiak onura sozialak, ekonomikoak eta ingurumenekoak sortzen ditu tokiko eremuan. Horren zergatia ez da soilik herritarrek protagonismoa hartzen dutelako, baizik eta energia-komunitateek, Europako legerian planteatuta dauden moduan eta dauden ekimenen bitartez, lehentasuna ematen dietelako, oro har, energia berriztagarriak garatzeko proiektuek onura sozial, ekonomiko eta ingurumenekoak kideei eta inguruneari zuzenean emateari, azken kontsumitzailearen errealitatetik hurbil dagoen ikuspegi bat bilatuz batez ere.

Hurbiltasun-ikuspegi horrek ez du zertan kontsumitzailearengandik hurbil dagoen ingurune batean energia sortzera mugatu; aitzitik, gizarte-ekarpen zabalagoa izan dezake, eta horrek inpaktu positiboak izan ditzake inguruko eragileengan.

Adibidez, energia-komunitateek, deskarbonizaziora eta jasangarritasun energetikora bideratutako azpiegitura eta teknologia garbiak hedatzen laguntzeaz gain, energiaren arloko ezagutza hedatzen laguntzen dute, energia-eraginkortasunean hobekuntzak bultzatzen dituzte, herritarrek tokiko eragile eta erakundeekin koordinatzen eta gizarte-gaiei buruzko arreta (hala nola kontsumitzaile kalteberen babesa edo herritarren premiekiko erantzuna, mugikortasunaren arloan adibidez) areagotzen laguntzen dute.

Udalak mota horretako ekimenak bultzatzen dituzten eragile nagusietako bat dira, hainbat helbururekin (deskarbonizazio-planak garatzeko, irabazi-asmorik gabeko gizarte-erakundeei laguntzeko, mugikortasun-eskema berriak ezartzeko, espazio publikoak aprobetxatzeko, energiaren kontsumoari eta sorkuntzari buruzko erabakiak demokratizatzeak, etab.).

Proiektu berriztagarrien kokapenari lehentasuna emango dioten gizarte-erakunde hautagarriak egoteak, tokiko herritar-taldeak, edota tokiko komunitateak garatzeko tokiko hornitzaileak bilatzeak, sendotu egiten du tokiko ikuspegi eta inpaktuaren ideia, bai eta horien artean hedatutako helburua ere, alegia, energia berriztagarriak eta kontsumo kolektiborako modu berriak hedatzeko gizarte-laguntza lortzea.

Hona Euskadin aplika daitezkeen ondorio batzuk:

EAEen energia-komunitateak bultzatzeak ekonomia-, ingurumen- eta gizarte-aukera ugari sor ditzake euskal ekonomiarentzat eta enpresentzat.

1. Tokiko energia-komunitateen askotariko ekimenak daude, hainbat motatakoak: neurri txikiko autokontsumorako instalazioak partekatzen dituztenetatik hasi eta tamaina handiko sorkuntza berriztagarriko instalazioak dituztenetaraino.

Gainera, egitura juridiko desberdinak aurreikusten dira energia-komunitateentzat: ETEetatik hasi eta irabazi-asmorik gabeko kooperatibetaraino.

2. Tresna gehigarri bat aurkitu behar dugu tokiko energia-komunitateetan, mendekotasun energetikoa murrizten laguntzeko, eta, aldi berean, herritarrek guztion den helburu horren lorpenean inplikatzeko.

3. Baditugu gaitasun teknologiko eta industrialak euskal lurraldean energia-komunitateentzako zerbitzu eta irtenbide berriak garatzeko, eta esperientzia eta teknologia aplikatuak esportatzea ahalbidetuko duten ezagutza eta gaitasunak sortzeko. Aldi berean, gaitasun propio horien ustiapenak kanpoarekiko mendekotasun teknologikoa murriztu dezake.

4. Bereziki, balio-kateen (sare elektrikoak, potentzia-elektronika, irtenbide digitalak, sare-ekipamenduak, energia berriztagarriak, biltegiatze elektrikoak, mugikortasun elektrikoak...) arteko sinergiekin berrikuntza sor dezakete, eta, oro har, lurralde osoaren lehiakortasuna sendotu.

5. Energia-komunitateak garatzeko gaitasun handia dago eskualde- eta toki-inguruneetan; horietan, lankidetzaren publiko-komunitarioak indarra hartzen du, eta tokiko erakundeek ekimenak protagonismo handiagoa hartzen du. Gipuzkoan, adibidez, GFAk duela gutxi ezarri du tokiko 21 energia-komunitate eratzea datozen urteetan 5.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietan. Eta Eusko Jaurlaritzak, 2021-2024 aldirako Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren Planean, helburu gisa ezarri du 2023an 12.000 eta 20.000 pertsona artean energia-komunitate bateko kide izatea. Helburu horiek lortzeko, hainbat sektore eta eragile-talderen partaidetzaren bidez izaera publikoko ekimenak sustatzea erabakigarria izango da.

6. Udalek funtsezko zeregina dute energia-komunitateak bultzatzeko, ekimenak defendatu eta sustatzea bezalako eginkizun xumetik hasi eta inplikazio zuzen eta aktiboago bateraino, izapideak erraztuz, espazio fisikoak bilatuz, masa kritikoa lortzeko bazkideak bilatzen lagunduz eta abar.

Beraz, garrantzitsua da ezagutza eta tresnak izatea, energia-komunitateen bultzatzaile-eginkizun hori gauzatu ahal izateko.

7. Energia-komunitateen garapenerako estrategiak hainbat erronkari erantzun dieten beste estrategia batzuekin bat etor daitezke, hala nola landa-eremuko despopulazioa geldiaraztea, etxe eta enpresetarako energiaren kostua murriztea, pobrezia energetikoari irtenbidea ematea edo Covid-19aren ostean ekonomia suspertzea.

8. Aldez aurretik energia-komunitateen berezko modalitateekin lerrokatutako kultura bat egotea, hala nola kooperatibismoa, ingurumen-kontzientzia eta trantsizio energetikoa gauzatzeko behararen kontzientzia, edota lan komunitarioaren edo auzotarraren tradizioak erraztu egin dezake EAEko proiektu horiei laguntza soziala ematea, batez ere tokiko ingurune bakoitzaren ezaugarri bereziak kontuan hartzen badira.

Ondorioz, honako erabaki-proposamen hau egiten dugu:

Erabaki-proposamena:

Aztertutako kasuetan identifikatutako erronka eta oztopoak erakusten dutenez, energia-komunitateen hastapenak konplikatuak edo ez oso erakargarriak gerta daitezke, prozesu burokratikoak edo azpiegituren finantzaketa ulertzeko eta horiei aurre egiteko zailtasunengatik, eta herritarrek, gainera, energia-sistemaren ulermen tekniko eskasa dutelako.

Horregatik guztiagatik ondokoa eskatzen diogu Ermuko udalbatzarrari:

- 1.- Ermuko ENERGIA BERRITZAILEEN KOMUNITATEA sortzeko zerbitzua kontratu txiki baten bidez egitea..
- 2.- Zerbitzu horrek partaidetza-prozesuaren eta ahalduntze-prozesuaren dinamizazioa eta aholkularitza juridiko eta teknikoa biltzen ditu bere baitan.
- 3.- Zerbitzu horren kontratazioa esleitzeari dagokion gastua onestea, indarrean dagoen udal-aurrekontuko 420.481.51 partidaren kontura ordainduta.